



**Txakur guztientzat egokia den bikote-komedia.**  
Galdu egin den txakurra eta desagertzen ari den bikotea

# TOTO

Egilea: Mafalda Bellido

**Max Sariatako finalista (Egile Berri Onena, 2019)**

**SGAEko XIII. Autor Express Antzerki Saria (2018)**

**CLAVE. Valentziako Literatur Kritika Sariko finalista (2017)**

Antzezleak: Miren Gojenola & Asier Hernandez

Zuzendaria: Agurtzane Intxaurreaga

Itzulpena euskarara: Kepa Errasti

**HIKA**  
TEATROA



**TOTO**

**ESTREINALDIA:**

**2023ko urtarrilaren 15ean LEZOn.**

Hurrengo emanaldiak

- |                      |                     |
|----------------------|---------------------|
| <b>URTARRILAK 15</b> | <b>LEZO</b>         |
| <b>URTARRILAK 20</b> | <b>ZUMAIA</b>       |
| <b>URTARRILAK 21</b> | <b>HONDARRIBI</b>   |
| <b>URTARRILAK 22</b> | <b>ARETXABALETA</b> |
| <b>OTSAILAK 4</b>    | <b>BERGARA</b>      |
| <b>OTSAILAK 10</b>   | <b>BERMEO</b>       |
| <b>OTSAILAK 11</b>   | <b>ASTIGARRAGA</b>  |
| <b>MARTXOAK 4</b>    | <b>ZIGOITIA</b>     |
| <b>MARTXOAK 11</b>   | <b>URKABUSTAIZ</b>  |
| <b>MARTXOAK 17</b>   | <b>ORDIZIA</b>      |
| <b>APIRILAK 21</b>   | <b>SESTAO</b>       |
| <b>MAIATZAK 13</b>   | <b>SOPELA</b>       |



HIKAREN unibertsoaz mintzatu zen Arantzazu Fernandez Berrian Tarara ikuskizunaz idatzi zuen kritikan (2020-02-24). Zein da Hikaren unibertsoa eszenan istorioak kontatzen jarraitzea ez bada?


Kontatzen jarraitu nahi dut, etiketatik ihes egiten saiatzen. Gogoko dut. Behar dut ibilitako bidetik ikasitakoa gogoratuz, bide berriak arakatzea. Aldiro.

TOTO komedia da. Komedia lazgarria. Zuzena eta artifiziorik gabea. Gogoia sentitu dut antzerkiaren aztarna hutsera itzultzeko. Gogoia bizitzari umoretik begiratzeko. Izan ere, barre egiteko gogoak salbatuko ahal gaitu trajediatik! Eta oraingoan egiazko emozio latzeneri uko egin gabe, publikoak barre egitea nahi dut.

TOTO espazio ezberdinetan antzezten imajina dezaket: espazio txiki, ertain, handi, erabilera anitzeko espazioetan. Nahikoa izango dira beti bi aktoreak, galdu den txakurra, eta publikoa. Hori dena, eta aldi berean, hain gutxi.

TOTO-k, umeen hizkuntzan, txakurra esan nahi du. Eta Maik eta Joxeluk, gure bikote protagonistak, txakurra umetzat dute. Gizateria eta animalia izaeraren arteko lerro fina.

*Agurtzane Intxaurraga. Zuzendaria*




Estaba en el coche cuando recibí la llamada de Agurtzane. Me dijo que tenía intención de traducir CHUCHO al euskera y subirla al escenario. En ese momento yo tenía a la derecha el mar Mediterráneo y a la izquierda otro mar, un mar de naranjos. Cuando colgué el teléfono me pregunté qué resortes pulsaba CHUCHO, tanto en su lectura, como en su puesta en escena, para despertar la motivación de traducir la obra y hacer un espectáculo, y lo tuve claro.

CHUCHO habla del amor a la lengua materna, del amor a las lenguas minoritarias, habla del amor al otro y de cómo lo expresamos, habla de la necesidad de compartir, habla del amor a la tierra y sus frutos, habla de la incomunicación, de nuestra inseguridad, de nuestros miedos y nuestros abismos. Y todo ello lo hace desde la comedia, desde la risa y también desde la emoción.

Pero CHUCHO no es una comedia romántica. CHUCHO es una comedia desgarradora, que lleva al límite a sus dos personajes. Una montaña rusa emocional que arrastra al espectador desde el comienzo y que pone un espejo frente a su butaca, en la que con sus miserias y sus verdades, se ve reflejado. Un espectador que asiste, en tiempo real, (lo que dura la obra) a la discusión de una pareja en el presente absoluto.

Que Toni y Bea, los personajes protagonistas discutan, ríen y lloren en euskera significa que, una obra pensada en una pequeña lengua como es el valenciano trasciende a otros ámbitos, a otros sentires y eso para mí, como autora, una satisfacción enorme.

*Mafalda Bellido. Egilea*



## SINOPSISIA

Maik (Maitane) eta Joxeluk (Jose Luis), Toto txakurtxoaren kustumia partekatzen dute. Toto galdu egin da Joxelurekin zegoenean eta orain Maik ezin du imajinatu bizitza bera gabe. Maitasunik gabe.

Maik eta Joxeluk, modu latzean eztabaidatzen dute. Eztabaidatzen dute geure bikotearekin, geure bikote guztiekin askotan egin izan ohi dugun moduan.

*-Entzun ba! Ez didazu entzuten. Ez duzu ezer ulertzen. Ulertzen didazu? Utzidazu azaltzen. Ez, ixo. Ez dut entzun nahi. Esango dizut. Zuk ez didazu ezer esango-*


Barrutik tragedia moduan bizi ohi diren eztabaidak, kanpotik ikusita, gehienetan barregarriak eta komikoak suertatzen dira. TOTO halakoxea da, txakur guztientzat egokia den bikote komedia.

TOTO, komedia intentsoa da. TOTOk belaunaldiz belaunaldi iraun duen sagastien adina dauka eta aldi berean, txakurkume batena. TOTOk maitasunaren galeraz hitz egiten du bere magnitude kosmiko guztian.

Joxelu, Mai eta Toto, oraintxe bertan, gizateriaren eta animalia izaeraren artean daude.



**Zure bikotekide ohiarekin ere ikusteko, erabat gomendagarria**



## TESTU LAGINAK

**MAI:** Nahiago nuke Totok bezala zaunka egin eta zoriontasunez saltoka ibili. Nahiago nuke goizero zu miazkatzeko eta zure hankartean igurzteko gogoa izango banu. Nahiago sagastian zehar korri egin eta lokatz artean zikinduz gozatuko banu. Nahiago bera bezain esker onekoa izango banintz, bera bezain adeitsua, azkarra. Nahiago berak bezala begiratu ahalko banu, Totok begiratzen ninduen bezala begiratu ahalko bazintut, eta maite ninduen bezala maite ahalko bazintut. Nahiago nuke gizatasunetik baino, animalia izaeratik gertuago banengo.

(...)

**JOXELU:** Amatasun sena piztu nahi nizulako oparitu nizun Toto! Bai, amatasun sena. Baina txakurrarekin egon garen urte guzti hauetan animalia sena baino ez zaizu piztu.

(...)

**MAI:** Zuk gehiago sufritzea nahi dut.

**JOXELU:** Gehiago?

**MAI:** Bai, gehiago sufritzea. Askoz gehiago.

**JOXELU:** Zenbat gehiago?

**MAI:** Gehiago orokorrean eta bere magnitude kosmiko guztian.

**JOXELU:** Maite ez ninduzula ulertu nuenean baino gehiago sufritzea nahi duzu?

**MAI:** Gehiago, bai.

**JOXELU:** Zuk ni gehiago maitatzeko, ni zu are gehiago maitatzen saiatu nintzenean baino gehiago?

**MAI:** Gehiago, gehiago, gehiago.

**JOXELU:** Edo erosi genuen lehen sagarrondoa eta bakterio suaz kutsatu ez den bakarra erretzeko eskatzen didazuenean baino gehiago?

## FITXA ARTISTIKOA

### Mafalda Bellido (egilea)

Valentziako Arte Dramatikoko Goi Mailako Eskolan testu-interpretazioan lizentziatua. Harrez geroztik, interpretazioa eta idazketa, biak uztartzen ditu. Bere azken testua, *Les Saurines*, Institut Valencià de Cultura-k (IVC) ekoitzi eta Castellóko Teatre Principalen estreinatua izan da (2021). Horrez gain, *Los que comen tierra*, bere beste azken lanetako bat, ingelesera itzulia izango da. Proiektu hau Valentziako Kultura Institutuak hautatu zuen Josep Lluís Sirera I. Antzerki Idazteunaren Laborategia integratzeko.

Bestalde, bere konpainia propioarekin estreinatutako lanen artean dira CHUCHO, (Max sarietako finalista, egile berri onena; Valentziako Arts Escèniques sarietako finalista, testurik onena; Valentziako Erkidegoko Dramaturgia Txapelketako irabazlea; Valentziako Kritika Onenaren sarietako finalista; Aktore Onenaren Saria, Aktore Expres Antzerki Onenaren sariduna; eta Valentziako Antzerki Onenaren Saria, Aktore Onenaren Saria. Era berean, *Vidas enterradas*, egiletza kolektiboko lana, hautagai da Max sarietan Juan José Millás, Juan Mayorga, Laila Ripoll, Alfonso Plou eta Pepe Viyuela egileekin batera.





## **Kepa Errasti** (itzulpena euskarara)

Informazio Zientzietan lizentziaduna (EHU, 2003), 2007an TAE Donostian aktore ikasketak amaituko ditu. Bere ibilbide profesionala batik bat, aktore bezala garatuko duen arren, antzerki testuak ere idazten ditu. Horren adibide, *Mami Lebrun* eta *Lur, Xake*, bere konpainiarekin eszena eramanak. Horrez gain, itzultzaile lanak ere egingo ditu antzerkirako. Besteak beste, berak itzuli ditu TAE (Donostiako Antzerki Eskolako) azken bost ikasturte amaieretako lanak; *Ezkertiarraren zain*, *Neskamearen ipuina*, *Ilargian*, *Bigarren eskukoa* eta *Abeslari burusoila*. Aldi berean, konpainia profesionalentzako ere itzuli izan ditu antzezlanak. La Dramática Erranteren *Altsasu* edota Arriaga Antzokiaren Ama Kuraia antzerki testua.

## **Agurtzane Intxaurreaga (zuzendaria)**

Emakume bizkaitarra (Orozkon jaio eta hazi) eta antzerkigile donostiarra (34 urte bertan lanean). Informazio Zientzietan lizentziaduna (EHU, 1992). Kultur Kudeaketako Masterra (UOC, 2022). Desagertutako Eusko Jaurlaritzako Arte Dramatikoko Zerbitzuan (Antzerti, 1989) aktore ikasketak burutu ondoren, HIKA Teatroa sortu eta ordutik, eszenatokiak bihurtuko ditu bere pasio eta ofizio. Gazte eta Tarara dira zuzendu dituen azken lanak. Azken honekin Torrejón de Ardozeko, XXV. Emakumezko Eszena Zuzendarien Lehenengo saria jaso du (2022).

Halaber, HIKAren eskutik, erakunde publiko eta entitate pribatuentzat hainbat ekintza eta ekitaldi ekoiztu eta zuzenduko ditu. Azkena, Lourdes Iriondo eta hamaika lore (ETB 2020).

Tarteka beste konpainia batzuentzat ere zuzendaritza lanak egiten ditu. *Azkena Agurra/ Encuentro* (2021), Vidania Films eskoiztea.

2016an animaziozko bere lehen luzemetraia zuzenduko du: *Teresa eta Galtzagorri* (Dibulitoon Studio). Urte horretan bertan filma, Goya sarietarako izendatua izango da. 2023an bigarren animazioko film luzea zuzenduko du Dibulitoon Studioarentzat.

Isiltasuna da bere soinurik gogokoena





## Asier Hernández Landa (Joxelu)

Eloy de la Iglesia zuzendari Zarauztarraren *Otra vuelta de tuerca* filmean egin zuen bere lehen aktore lana, 1985ean. Bizipen horrek garrantzi horren handia izan zuen berarengan, aktore lanean sakonduz jarraitu duela azken 37 urteetan. Ordutik hona, Euskal Herriko eta Espainiar estatuko hainbat ekoizpenetan aritu da antzerkia, zinema edota telebista lanak eginez.

Sari desberdinak jaso ditu, besteak beste *A Dar Bakar* eta *Cirilo* laburmetraietan egindako aktore lanengatik. Antzerki testu egile bezala hiru aldiz jaso du *Café Bar Bilbao* saria bai gaztelaniaz eta baita euskaraz ere idatzitako antzerki testu ezberdinengatik.

Horrez gain, hainbatetan zuzendari laguntzaile, antzerki irakaslea eta casting laguntzaile lanak burutu ditu.

Gaur egun *Semea pixka bat motelago dabil soilik* antzezlanean eta *El Internado-Las Cumbres* telesailean ari da lanean.





## **Miren Gojenola (MAI)**

Euskal Gorrak -Pertsona gorren elkarteen Euskal Federazioa-ren eskutik, zeinu-mintzairan diplomatua (2015/16), Aktore ikasketak ANTZERTIn burutu zituen (1986) eta, ondoren, HIKA Teatroaren sortzailea izan zen (1989-2005).

Urte horretan ibilbide berriari ekingo dio beste antzerki talde ezberdinen lanetan parte hartuz. Besteak beste: *Ongi ibili*, Aizpea Goenagak zuzendua eta Pok antzerki taldeak ekoitzia (2005); *Wilt*, Garbi Losadak zuzendua eta Ados Teatrok ekoitzia (2011). *Hiru*, Begoña Bilbaoren zuzendua eta Txalo Teatrok ekoitzia. 2013tik aurrera, aldiz, ugariak izan dira HIKA Teatroarekin burutu dituen lanak: *Itsasoaren emazteak* eta *Koaderno Zuri*, esaterako. Biak Agurtzane Intxaurrearen zuzendaritzapean.

Aldi berean, 1994tik 1999ra ETBko *Goenkale* telesailean Amaia-ren pertsonaia burutuko du (1994-1999). Ondoren, aktore zuzendaria izango da (1999-2011).

2013tik aurrera, aktore-lana irakaskuntzarekin uztartzen du, eta helduentzako eta gazteentzako antzerki-eskolak ematen ditu.



**TOTO galdu egin da**



### **FITXA ARTISTIKOA**

Egilea: **Mafalda Bellido**

Antzezleak: **Miren Gojenola eta Asier Hernandez**

Zuzendaria: **Agurtzane Intxaurrea**

Euskarara itzulpena: **Kepa Errasti**

Zuzendari laguntzailea: **Tania Fornieles**

Argiztapena: **Xabier Lozano**

Espazio eszenikoaren diseinua: **Miren Intxaurrea & Xabier Mujika**

Musika konponketak: **Adrian García de los ojos**

Promo audioak: **Iñigo Telletxea**

Abestiak: **Xabier Lete** "Jardin bat zuretzat", **Barricada** "Vive a toda velocidad", **Egan** "Mexikon lo ez"

Jantziak: **Xabier Mujika**

Grafika: **Santos Bregaña**

Promo bideoak: **Acrónica Producciones**

Argazkiak: **Otsabi (Egoitz Bengoetxea)**

Mediazio proiektua: **Hika Teatroa**

Teknika: **Acrónica producciones**

Administrazioa: **Asun Etxeberria**

Komunikazioa eta banaketa: **Nagore Martinez** (633252200 / 656792501)

Ekoizpena: **Hika Teatroa**

# TOTO



## HIKA

Aldapa kalea 14. Donostia. Gipuzkoa  
T 633 252 200 - 656 792 501  
[hika@hikateatroa.eus](mailto:hika@hikateatroa.eus)  
[www.hikateatroa.eus](http://www.hikateatroa.eus)

